



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



# bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



**GASTON ANAIK:**  
**Kirolaren alde bi**

1998ko martxoa. 2. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Santutxuko ihauteriak ⇨ Boulderra ⇨ S. D. Begoña ⇨ eta askoz gehiago

# OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

## Euskara eta euskal kultura bultzatuz

*Ikastaroak, irteerak, kultur ekitaldiak ...  
Ez daukazu atxakiarik*

### *Euskaraz bizi!*

telefonoa: 4121877

berton

## Zure aldizkaria ere bada.

- ✓ BOTA HONA BELDUR BARIK ZURE IRITZIA, INFORMAZIOA, ASMOAK...
- ✓ LAGUNDU PROIEKTUA AURRERA ATERATZEN, ATEAK ZABAL-ZABALIK DITUZU.  
edo bestela
- ✓ EGIN HARPIDETZA:

1000 PEZETATAN 11 HILABETETAN HARTUKO DUZU ETXEAN.

*Hemen gaituzu gura duzunerako:*

Aita Pernet, 9. 48004 Bilbo

Telefonoa: 4735448

E-posta: berton@mail.com

EUSKAL

Santutxuko Euskal Txokoa


Euskaltzaleon topagunea auzoan

*Guztion ekinari eta gogoetari  
bidea zabalduz*

Telefonoa: 4735448

e-posta: asapala@eusnet.org

http://come.to/santutxu



TXOKOA

berton

AURKIBIDEA

4 ⇨ BUZOIA  
IDATZI DIGUTENA

5 ⇨ BERTORATUAK  
"HERRIRA, ALFERRIKAKO  
AHALEGINIK EZ DAGO".

6 ⇨ Beitu!  
GAZI-GOZOAK

7 ⇨ Begia

8 ⇨ MAHATSORRIA

9 ⇨ BATU GURERA!  
PA..YA TALDEA

10 ⇨ BERTON DUGU!  
TXURDINAGAKO BOULDERRA

12 ⇨ BERBETAN  
MARTXOAREN 8A

13 ⇨ BINAN-BINAN  
GASTON ANAIK

16 ⇨ MAHATSBERRIAK

21 ⇨ BIBA ALEGRANTZIE!  
SANTUTXUKO IHAUTERIAK

24 ⇨ BOTA BA!  
S.D. BEGOÑA

26 ⇨ BIDEAK  
KULTUR BERRIAK

28 ⇨ BEGIZORROTZA  
Komikia

29 ⇨ BADATOZ  
AGENDA

30 ⇨ BURUHAUSTEAK  
DENBORAPASAK

31 ⇨ BERTSOTAN

berton

#### ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkartea

#### ERREDAKZIOA:

Aita Pernet 9

Bilbo - 48004

Telefonoa: 4735448

E-posta: berton@mail.com

#### ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar

#### ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi  
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione  
Letamendia, Itxaso Perez.

#### ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

#### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

#### KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Jexumari Zalakain, Iñaki  
Gaminde, E. Basozabal, Idoia Irastorza, Igor  
Martin de Vidales, Santutxuko Bertso  
Eskola, Josu Aranbarri.

#### ADMINISTRAZIOA:

Koldo Urrutikoetxea

#### PUBLIZITATEA:

Eneko Ribas

#### LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

#### ALE KOPURUA:

1000

## Aupa Mahatsorriok!

Amen gaiz oster a be, eta ondino lengo hileko sorpresatik, eta karnabelatik gehien baten, errekupeau barik gaizela, amen dator bigarren *berton*. Eta, zer dakar honek? Ba, leidunten jakin badakizu, justu honen ganean daukazu indizea, eta hortxe ipini dogu oraingo numeroan topauko dozune. Leidu eta ikusiko dozu zeure ingeruan be hainbat gauza pasaten direzela: karnabalak izan direla mundu guztien, eta handik astebetara Santutxun, ze honeik beti egin behar dituez gauzek alrebes, eta Aita Santuaren permisua barik be karnabalak egiten dituez Garizumen, eta zelangoak ganera! Rio de Janeiron eta Lantzen inbidiek tragaute dagoz, ta domekan ganera! Eta hurrungo egunien beharrera joan behar dala? bardin dotsaaaaa...! Zarrak alaaaa!

Baie ikusiko dozu hemen munduen dena ez dala parrandea be, eta deportistek be badaozela, eta horreik dekien afiziñoaaaa... itzela. Aitu ezpabere Gaston anajieri, bata karran eta bestie txirrinken edadien aurrera eta dingi-danga daaaale-ketepegoooo. Eta zeuk be deportea egin gure badozu, orain lehen baino atxaki gitxiago dekozuzu, ze Otxarkoagan egin daurie kanpofubol barrie, elegaaaaantie... ez dakizu zelangoa! Ta beste hainbet gauze be badekoguz, leidu ta enterau egingo zara, ze nik danak orain kontaten badotzudez, alperrik ibili dires biarrien gure periodistek, ta hori be ez da kontue, gazterieri be emon bier jako zeregine, ezpabere aburridu eta abrozidu egiten dires, ta gero pasaten direz pasten direzenak, eta ganera, neu be kantsata nago eskribiduten, ze eskolan ez neuen ikisi apenas eta ez dakit zer gehiago ipini. Ai, neure denboran be modelode egon baleite! Hala, agur!

Firmaute:

Atzenengo matzorrianoa

# idatzi digute...


## Oiartzundik Santutxura

Duela hiru urte, nahi genituen ikasketak burutu ahal izateko, Leioa aldera etorri behar izan genuen. Santutxun herriko jendea zegoenez, berton gelditzea erabaki genuen. Hasera batean, Oiartzun bezalako herri txiki batetik atera behar soilak izutu gintuen, baina pisuan herriko jendea zegoenez, ez zen hain gogorra izan. Zaila da herriko ohiturak aldatzea, baina "txip" aldaketa egin beharra zegoen. Kotxe soinuak, etxe erraldoiak, animalia falta, zikinkeria, kiratsa...

ez dira ohizkoak gure herrian, baina askogatik gogorrena, kalean jende pila ikusi eta inor ez ezagutzea zen; inork ez agurtzea. Gogoan daukagu oraindik arratsalde batean gertaturikoa. Kaletik gindoazen, eta gizon batek "euskaldunak sarie?" galdetu zigun. Oiartzunen kaletik jendea euskaraz mintzatzea ez zaigu inoiz arraroa suertatu. Hala ere, jendea ezagutzen hasten zara, gelakidea delako, norbaiten ezaguna delako, parrandan aurkitu duzulako edo beste edozein kasualitaaterengatik, eta azkenean ez zara hain arrotz sentitzen.

Eta egia esan, piskanaka, hain ezezagun eta iluna zena, astea igarotzeko paraje atsegina bihurtu zaigu.

Harriet Garai  
Igor Rebollo



berton

# laster on line

Laster baten  
**berton-eko edukiak interneten  
ikusteko era izango duzu.**

**<http://come.to/berton>  
webgunean sartu eta hantxe topatuko duzu**

# kolaborazioak

## Herrira, alferrikako ahaleginik ez dago.

Jexuxmari Zalakain

**E**z naiz hasiko Herrira ekimenaren historia egiten. Ez da hori, seguru aski, Bertoneko lagunek nigandik nahi dutena. Nahita ere, ordea, ez nintzateke ni eginkizun hori betetzeko egokiena; oroimena, izenatarako ez bezala, ez baitut datetarako prestatua. Historia egitekotan, egingo dute, egunen batean, ekimen horren benetako eragileek, distantzia handiagoa hartzen duenean, adibidez. Edonola ere, goizegi ere bada horretan aritzeko.

Sortu zenetik ezagutzen dut ekimen hori, eragileek horri buruzko idazki bat nire etxera bidali zutenetik. Norbaitek auzoko VIP kontsideratu zuen nire burua, eta nik eta beste batzuk egiten dugun Herria 2000 Eliza aldizkaria herriko kale txiker batean kokaturik dagoela aurkitu zuenez, ekimenaren bultzatzaile —eta sostengu— izan gintzen proposatu ziguten. Holakoetan, beti jotzen duzu aitzakia on baten bila, berriro ere harrapatua sentitzen duzularik zeure burua: aski dut jada; ezin izango dut benetako partaidetza eskaini, asteak ez baitu aski egunik niretzat; hobe gutxi hartu eta hori ondo egin; etab. Denak arrazoizko gogoetak; baina denak, hutsalak, alferrikakoak, aitzakia hutsa azken finean. Presoak Euskal Herrira ekartzeko bada —ekartzen saiatzeko, alafede!—, ez dago ukatzeko modurik, ezin arrazoi

zuzenik aurkitu. Azkenean, onartu beharra daukazu, ekimenaren larria zure burutazio tentelak baino gehiago izaki, baiezkoa eman beharra sentitzen duzu zure errailetan, zer eman ez dakizula, ordea. Eskatzen didatena, gutxienez. Otutzen zaidana, gero.

Behin edo bitan iritsi naiz, eragileek behin eta berriro, nekatu barik, bileretan parte

"Holakoxeak gara:  
zerbaitek ez bagaitu  
hurbil-hurbiletik  
jotzen, hutsaren  
hurrengoa da geure  
ahalegina."

hartzeko egindako deiari erantzutera. Eta beti kexu aurkitzen ditut —zorionez kexu—, ezin ailegaturik, ezinean; gogotsu bezain ezinean. Izan ere, ezin gogorragoa gertatzen baita, zure helburua justiziazkoa dela ikusirik, apenas oihartzunik aurkitzen duela konturatzea. Holako zerbait izaten da kexuaren mamia, hamaika modutara azaldua —apal-apalik, amorrazioz, salatu nahirik, etsipen-puntu batek joa—: «pozik gaude hilean behin egiten dugun manifikarekin, baina ez da nahikoa; amorrua ematen du ikusteak, hilabeteko prozesioa egiten dugunok baino gehiago direla

etxean edo tabernan gelditzen direnak». Eta Leninen galdera sortzen da, ezinbestean: zer egin?

Errazena izanda ere, kontseiluak emateko ez naiz inor; halere, hasteko, ez etsi; karteletan lagun bakar bat gelditzen den arte, ez etsi, eutsi beharra baitago irabaztekoan. Bigarrenik, ekin eta ekin; errepikatze beldurrik ez ukan, Euskal Herria bezalako herri tiki okupatuena garaipena etsaiak baino egun bat gehiago irautean omen dago-eta. Hirugarrenik, arineketan baino maratonia korritzeko prest, konponketa oraindik puska baterako dela ohartu; ahantzi gabe, Telesforo Monzon Olasonekok zioen modura, irabazi irabazi dugula, baldin eta ez badugu inoiz bizkar ematen. Laugarrenik, ulertu nahi ez duenak ez du ulertuko —hori ere badakigu—, borrokaren zipriztinek betazalak harrapatzen ez dizkion bitartean. Holakoxeak gara: zerbaitek ez bagaitu hurbil-hurbiletik jotzen, hutsaren hurrengoa da geure ahalegina. Nik, bederen, biziki eskertzen dut, saiatu eta saiatu, akuiluarena egiteko erantzukizuna beren gain hartu dutenen jokabidea —Herrira ekimenaren bultzatzaileek egiten duten modura—. Zuek gabe, lagunok, eskasagoa litzateke besteon erantzuna, ahalegin alferrikakorik ez baitago.

# gazi-gozoak


Argazkia: Iñigo Azkona.



Santutxu erdian dugu kartel hau, *Caixa Galiciaren* bulego berrian hain zuzen. Galizieraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez jarri dute trukearen informazioa, baina euskararen arrastorik ez! Euskaldunok ez dugu moneta ofizialik, bada-kigu, baina hizkuntza gutxi-agotua duen herriko erakundeetatik sentsibilitate apur bat gehiago espero zitekeen, gero!



Argazkia: Iñigo Azkona.



"GALERNAK HIGATUTAKO PAPERAK, PLASTIKOAK ETA POLTSAK ESPALOI ARGITUAREN DEKORAZIOA. GLASGOW CITY COUNCIL. MOGITUEGIA IRTENGO DIT FOTOGRAFIK SEGURUENIK".

Urtzi Urrutikoetxea

! U T I A

**Kafe ANIZO KIA**

**1998ko APIRILA**

02 osteguna	22:00	<b>FERMIN MUGURUZA - DUT-GAITZERDI</b> "Ireki Ateak Tour 98" +LIF
03 ostirala		
04 larunbata	17:00	<b>TXIRRI, MIRRI, TXIRIBITON</b> "Han Urruñan etxe postola" (Urruñako Ikastolaren alde)
	19:00	
05 igandea	17:00	<b>OLGETAN haur jaia</b> Auskalo taiea: "Txapa tailerra" <b>LLUIS LLACH</b> "Nu"
	20:00	
16 osteguna	22:00	<b>AKELARRE</b>
17 ostirala	22:00	<b>GARAGE H</b> (Cuba) <b>INADAPTATS</b> (Catalunya)
18 edo 19		<b>MANU CHAO ?</b> (Ikus programa)
23 osteguna	22:00	<b>Jazz-Blues Gaua</b> <b>MALCOM SCARPA &amp; NACO GOÑI</b> +BERRIZ BLUES SESSIONS +BLUESCAVIDAS
24 ostirala	20:30	Madres de la Plaza de Mayakoei omenaldia <b>"CHE" Antzerkia</b> Cia. La Pajarita de papel
26 igandea	17:00	<b>DOMEKAN JAI haur jaia</b> Auskalo taiea: "Txapa tailerra"
30 osteguna	19:00	<b>"OVERCALL"</b> Emedia Comunicación-en argazki, laburmetrai eta maketen lehiaketan.

San Vicente 2 48001 BILBO  
Tel: 424 4625 Fax: 424 2802

Laguntzailea: **BI-96.0-FM**  
-BILBO HIRIA IRRATIA-

**Lanbroa**

**DAYTON**  
Reagge-festa taberna  
*Santutxuko poteo gunean*

**Otoio Mendi**  
Sta. Klara

**KAIKU**

**jo ta ke**  
Otxarkoaga euskaldundu arte!  
**Pa... Yak baditu alternatibak**  
*demokratikoak noski!!*

# MAHATS ORRIA

Mahatserrria zana, dana eta izango dana

## Begoña eta euskerea

☞ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza,  
eta I. Martin de Vidales

Sarri entzuten izan dogu eta, zoritxarrez, ondinokarrean bere entzuten dogu, Bilbo huri erdalduna delakoaren leloa. Euskaltzaleak ei direan batzuk bere nekez sinestu leie Bilboren euskalduntasuna. Historia ezin ukatu leien legez, geroa bere ezin ukatu geinke eta geroko gero euskalduna sinestuta, honeetara orriotara Bilboren euskalduntasunaren zertzelada batzuk ekarten ahaleginduko gara harik eta zeuok irakurleok, baten batek gure apurrok irakurri ahal baleiz, abrozidu artean.

Barriro esan behar dogu Bilbo huri euskalduna izan dala bere historia osoan zehar, 700 urte behingoan; egia da, izan bere, euskerea lurperatuta bizi izan dana urte luzeetan, lotsakizuna izan dala bai eta bertoko euskaldun askorentzat bere; baina, errealitatea treko dana legez, hortxe doguz Begoñako jatorrizko euskaldunak gomuta eragiteko katea ez dala eten egundo bere. Eurok katea-begiak izanda, bihar-etziko Bilboren euskalduntasunaren lekukoa opetsi ezeze, gorde daben jakitatea bere ekarriko deuskue gure bitartez.

Urte gutxian hatagino aldatu gura izan deuskue hau huriu zeinda, arrisku bizia daukagu bertokook ezagutu ezteko, metroa bere etxe ondoraino etorri jaku. Huri kosmopolita, mundura adi dagoana; baina gure huria geurea izan daitean euskaldunon bihotz-buruakaz eraiki behar da, orain artean lurpean bizi izan garean eta betirako lurpetu gura gaituezan euskaldunok asfalto azalera urten behar dogu euskerea bihotzetan eta batez bere ezpanetan.

Gure ihardunari ekiteko, hainbeste kosmopolis-motatik aldendu gurean, Begoñan oraintsura arte zantiratuak zandebedarrakaz osatuteko erabili izan dan ondoko formula hau dakartsuegu:

**“santiritu sana urrutu sana bere lekuen sartu”**

(zantiratua zana urrutu zana bere lekuan sartu)



## 1918ko Begoña

☞ Itxaso Perez

Milagros Otxoa de Eribe Aizpuruk utzitako argazkia da, gaur egun Zurbaranbarriko bizilaguna eta 1922an Basarrate ondoko baserri batean jaioa, garai hartan Briñas Estrada izeneko kalean zegoena. Gaur egun baserriaren lekuan etxebizitzak daude.

Argazkian agertzen diren bi andreak Milagrosen ama eta izekoa dira, Maria Dolores eta Maria Aizpuru Urkaregi, hurrenez hurren. Lehenengoa (txikiena) 1899an eta bigarrena 1897an baserri horretan jaioak. Euren gurasoak Deba aldetik etorritakoak ziren. Argazki honetan M<sup>a</sup> Doloresek 18 eta Mariak 20 urte edukiko zutela dio Milagrosek.

Milagrosek ez daki argazkia non dagoen aterata, baina Santutxu inguruan egin zela pentsatzen du. Hori bai, 1918. urtekoa da.

## Pa...Ya taldea



Argazkia: Pa...Ya.

Pa..Ya konpartsako kideak Bilboko Aste Nagusiko txosnan

☞ Jaione Letamendia

Duela hamar urte inguru sortu zen talde hau. Horretan beraiek ere ez dira ados jartzen. 1988-89 inguruan kokatzen dute bere sorrera. Nahiko ibilbide xeble edo berezia izan duen taldea da hau. Momentuan interesa, gogoia pizten dien edozein gauzatan muturra sartzeko prest izaten dira normalean. Gaur egun Euskal Herriak bizi dituen arazoetan buru belarri sartzan bada ere, humoreak eta jai giroak talde honen ekintza gehienetan toki garrantzitsua izan ohi dute.

Halakoxea izan zen bere sorrera ere. Iparraldeko Patxa taldearekin anaiarte bat sortu zuten. Horrela, edozein aitzakia ona zen Baiona aldera inguratu eta asteburu ederrak pasatzeko edota Patxakoei Otxarkoaga eta Bilboko Alde Zaharreko tabernak erakusteko.

Urte batzuetan isil samar egon ondoren, Leninen estatua bat ekarri behar zela eta, hor hasi ziren bazterrak nahasten. Errumaniakoren bat nahi omen zuten. Azkenean Madrilgo Parlakoek Marx eta Leninen estatua bat eskaini zieten, beraiei ez baitzieten ipintzen uzten. Beraz, Lenin Eguna antolatzea bakarrik falta zen, eta nola ez, egin zen,

Parlako lagun berriak gonbidatuz. Otxarkoagako sarreran ikus daiteke gaur egun estatua hori. Silvio Rodriguez, Frank Delgado eta Maixa ta Ixiarren kantaldia izan zen beste ekintzetako bat. Kontu asko zuten honen inguruan ere, gainera ia guztia ondo atera baitzen.

### PA...YA KONPARTSAREN SORRERA

Baina egin duten azkena, Pa...Ya Konpartsa osatzea izan da. Bilboko jaietan parte hartzen dute txozna jarriaz eta saltsa guztietan sartuz; lhauterietan karrozarekin, kopletan, Santo Tomas egunean... Konpartsaren asunto honek lan handiago eta erregularragoa eskatzen badu ere, emaitzak ez dira makalak.

Istorio hauek guztiak bata bestearen atzetik, elkarri betarik eman gabe hasi ziren irteten Martxoaren 8an egin zuten bazkarian. Auzokoa ez izan arren gogoan zituzten guztiek, Armintzako bere baserrian Rafak prestatzen zizkieten babarrunak Lemoizko eguna tokatzen zenean. Beraz, kartzelatik atera bezain pronto antolatu zioten Ongi Etorri polit bat babarrun eta guzti. Guztiek ere nola bukatu zuten ez kontatzea, hobe.

# Txurdinagako boulderra

Eskaladoreek mendietako haitzetatik igotzea izaten dute helburu. Horretarako, astean zehar ere entrenatzen aritzen dira lehenagotik prestatutako tokietan. Txurdinagako etxe altuen artean eskalatzeak harrigarria badirudi ere, inguruko eskaladoreek bertako boulderra dute entrenatzeko toki nagusia.

☞ **Joseba Zelaia**

Ezaguna da euskaldunon mendirako zaletasuna, eta ezaguna era berean gazteon abenturarako afizioa. Beraz, ez da harrizkoa horrenbeste gazte eskaladaren munduan ibiltzea.

Astebururo, Atxarteko haitzetan, Ogoñoko labarretan, Pirinioetan, Pikoetan edo beste edozein menditan ikusi daitezke gazteak eta ez hain gazteak hormetan gora, beren koloretako sokekin igotzen. Baina asteburuetan hormetan gora igotzeko, astean zehar entrena-tzen al dute? Eta non prestatzen dira aste bukaeretako igoe-rak egiteko?


Ba, nahiz eta beraiek entrenatu hitza ez duten oso gustukoa, Bilboko eskaladore asko, gure auzora datoz, asteburuan besoak puntuan izateko, Txurdinagako boulderrera.

## SOKA BARIK ESKALATZEA

Boulder hitza ingelesetik dator, eta horizontalean soka barik eskalatzea adierazi nahi du, Txurdin egiten dena hain zuzen ere. Baina entrenatzeko toki bat baino askoz gehiago da, eskaladoreen biltoki bat ere badela esan daiteke,

askotan bertan biltzen baitira beren mapa edo aldizkariekin aste bukaeretako planak egitera, edo beteranoen iritziaren bila, askotan edozein aldizkaritan baino

Bilbo inguruan entrenatzeko toki baten beharra ikusi zuten, behar hau asetzeko,



Argazkia: Iñigo Azkona.

Taktika bereziak entrenatzeko tunela

informazio gehiago jaso baitaiteke beraiengandik.

80.hamarkadaren hasieran jende gaztea eskaladaren munduan indartsu sartu zenean,

Begoñako eleizaren ondoan dauden komunetan entrenatzen hasi ziren, baina laster ezagutu zituzten handik ez oso urrun dauden Txurdinagako tunelak, eta lehenengo harriak pegatzen hasi ziren, hauek izan ziren boulderraren lehenengo

bertan


hastapenak. Lehenengoko harri haietatik, denbora asko pasa bada ere, eta entrenatzeko toki berri asko sortuz joan badira ere, Txurdik jarraitzen du jendea erakartzen.

Gaur egun, edozein arratsaldetan mota guztietako eskaladoreak ikusi daitezke tuneletan, badira eskalada txapelketan parte hartzeko prestatzen direnak, badira mendian hobeto eskalatzekeko intentzioarekin Txurdira hurbiltzen direnak ere, edo eta arratsaldea pasatzera joaten direnak ere bai, noizbait goi mailako mendizaleak ikusteko aukera ere izan da.

## ESKALADOREEK SORTUA

Urtetik urtera belaunaldi berriak azaltzen dira, eta betiko eskaladoreekin nahasten dira lagun arteko giroan. Urtero jende gazte berria azaltzea, Txurdi horrenbeste urtez bizirik mantendu duena izan da, eta denen artean egin dira tunelaren mantenimendua eta berrikuntzak. Bertan eskalatzeko dutenek euren dela sentitzen dute, izan ere, norik ez du inoiz harriren bat «pegatu»? Txurdi eskaladore guztien artean egin da, horrek ematen baitio xarma berezia, autogestio eta okupazio kutsu nabarmena dauka Txurdik. Beraz, zaindu dezagun tunela guztiona baita, eta bertan edo beste edozein menditan elkar ikusiko dugu.

Argazkia: Iñigo Azkona.



Esperientzia maila ezberdineko eskalataileen topagunea

# I N K E S T A Zer iritzi duzu Martxoaren 8ari buruz?

N  
A  
T  
E  
B  
R  
E



**B e g o ñ a**  
(Santutxu)

«Martxoaren 8a emakumeen eskubideak eskatzeko egun aproposa da. Horrek ez du esan nahi egun bakarra denik, baizik eta egun honetan emakumeak elkartzen direla. Nik ez dut ospatzen baina ospatzen duten lagun asko dauzkat».



**I z a s k u n**  
(Santutxu)

«Instituan nengoenean jai eguna zen niretzat, baina gaur egun egutegian agertzen den egun bat besterik ez da. Pena bat da eta berriro ospatzea gustatuko litzaidake».



**I ñ i g o**  
(Bolueta)

«Niretzat ez du inoiz esanahirik izan, emakumeentzat egun ospagarrria izango da baina nik neuk ez dut ospatzen.»




**J u a n M a n u e l**  
(Otxarkoaga)

«Berdintasuna eskatzen zuten emakumeen heriotzak gogoratzen dira egun honetan. Nire ustez, hala ere, eskubide berdintasuna aldarrikatzeko ez da beharrezkoa egun berezi bat».



**R e b e k a**  
(Santutxu)

«Egun garrantzitsua da emakumeentzat, orain dela urte asko Martxoaren 8/ emakume langileen eguna izatea erabaki baitzen. Erabakiaren zergatia ez zen oso alaia izan, baina gaur egun ospatzeko egun bat daukagu».




**R o b e r t o**  
(Bolueta)

«Emakumearen egoera azaltzen eta salatzen duen eguna da Martxoaren 8a».



**B i t t o r i**  
(Santutxu)

«Egun hau emakumeen eskubideak defendatzeko da. Hala ere, ez ospatzea hobe izango litzateke, horrek emakume eta gizonen artean ezberdintasunik ez egotea suposatuko bailuke».



**J o s e b a**  
(Solokoetxe)

«Emakumeek lan eskubidea aldarrikatzen duten eguna da».

Argazkiak: Iñigo Azkona.

# GASTON ANAIAK: MAHATSERRIKO KIROLARI PETOAK

Mahatsferri inguruan eman dute ia bizitza osoa. Otxarkoaga eta Santutxun hasi, hezi eta bizi izan dira eta auzo bi hauetaz dituzten oroitzenak oso onak dira. Anai hauek, kirolaren alde profesionala eta alde afizionatua erakutsi dizkigute. Kirolak beren bizitzaren zati handia betetzen du eta kirola bizitzeko filosofia bat bezala definitu digute. Izenez Eduardo eta Iñaki. Hala ere, ezagunena abizena dute. Gaston anaiak dira.

### Unai Cuevas

**berton:** Nola hasi zinen atletismoan/txirrindularitzan?

**Eduardo:** Kirola egiten 8-10 urtekin hasi nintzen. Hasieran futboleko aritu nintzen baina astean birritan bakarrik entrenatzen zutela ikusten nuen, korrikan hasi nintzen. Honela, egun bi horiez gain neure kontura beste bitan korrika egiten nuen. Hainbat urtetan kirol biak praktikatu nituen, baina ikusi nuen erresistentzia nuela eta korrika egitera pasatu nintzen. 25 urte nituenetik aurrera maratoni probetan hasi nintzen eta ordutik mundu mailako 20 maratoni parte hartu izan dut: Londres, La Habana, New York, Geneva, Bilbo, Donostia...

**Iñaki:** Modu leloan hasi nintzen. Lagunek bizikleta bat utzi eta

infantil mailako lasterketara eraman ninduten 13 urterekin. Eta honela, pixkanaka, engantxatuz joan nintzen: lehen bizikleta erosi, maila ezberdinetako lasterketetan parte hartu... Baina oso garrantzitsua izan da nire bizitzan nire etxean bizi izan den kirol giroa: nire aita boxeolaria izan zen, nire anaiak futbola eta atletismoa praktikatzen zituen...eta honela edozertara baino kirolera errazago engantxatu nintzen.

*Iñaki: "Askotan ikusten duzu irabaztea azkena heltzea bezain zaila dela".*

**berton:** Non entrenatzen zenuen?

**Eduardo:** Beti kalean. Hori bai!, kontu handiz beti. Normalean beti 5 ibilbide egin izan ditut: Santutxu-Urgoiti (joan-etorria), Ganguren guztia, Enekuritik jolas parkera, gaur egun Etxebarria eta Txurdinagako parkeetan eta Bilboko udaletxetik Negurirainoko joan-etorria.

**Iñaki:** Adina eta garaia kontutan izanik aldatuz joan da. 12-13 urterekin Urgoiti edo Galdakaoraino heltzen nintzen eta gero mailaz igotzen nuen heinean ibilbideak luzatuz joan ziren. Amateur eta profesional mailan asko entrenatzen nuen eta Gasteiz edo Arrasatera joaten nintzen eta gero Eibarretik Bilbora bueltatu. 4-8 orduko tartean entrenatzen aritzen nintzen. Hala eta guztiz ere, nire ustez errepidea dagoen bitartean entrenatzeko lekua dago.

**berton:** Zer izan da zuretzat positiboena eta negatiboena atletismo/txirrindularitzan?

**Eduardo:** Positiboena, milaka pertsona ezagutu izan ditudala. Ez nuen bakarrik korrika egiten, lagunak ere egiten nituen. Atletismoak, eta kirolak orokorrean beti eman izan dit adiskidetasuna, laguntasuna. Atletismoari buruz idazten ere ikasi dut eta kolaborazioak egin izan ditut komunikabide batzutan : Kirol di, Egin... Irratian hitz egiten ere ikasi izan dut eta gutxi gorabehera 300 lasterketetan ibili izan naiz esatari lanetan. Alde negatiboa betikoa da, inguruan atletismo pistak egotea gustatuko litzaidake. Gaur egun Basauri edo Barakaldora joan behar izaten dut eta negatiboena atletismoa egiteko ingurunean azpiegiturarik ez egotea da, alegia.



B  
I  
N  
A  
N  
A  
N  
A  
N

**Iñaki:** Txirrindularitzak ia beti gauza positiboak eman dizkit. Eman dizkidan gauzetatik % 99a positibotzat hartuko nituzke: kirolarekin harremanetan bizi zara, osasuntsu bizi zara eta gainera gustokoa duzuna egiten baduzu, kobratzen baduzu eta lasterketak irabazten badituzu, zer gehiago nahi duzu, ez? Alde negatiboan erorketak eta zorte txarra jarriko nituzke baina orokorrean dena positibotzat hartuko nuke.

**berton:** Idolorik izan al duzu?

**Eduardo:** Ez naiz idoloak dituen horietakoa. Nik gustuko dudana jendea egunero saiatzen den jendea da. Bestetik, beti gustuko izaten duzu nabarmen dena eta gaur egun Martin Fiz aipatuko nuke. Honek txikitatik argi izan du zer izan nahi duen eta lortu egin du. Azken batean, niretzat idoloa da gai dena, bere burua aurkitzen duena eta asmatzen duena.

**Iñaki:** Guztioi bezala onak gustatu izan zaizkit: Hinault, Zoetemelk, Merckx... Baina gero, profesioaletan zabilzanean eta zure lana egiten duzunean idoloak alde batera uzten dituzu. Askotan ikusten duzu irabaztea azkena heltzea bezain zaila dela. Hala ere, lehenengoak saria izaten du eta azkenengoak ez. Orduan dena baloratzen hasten zara, ez bakarrik irabaztea. Hasieran zure idoloak dituzu, baina gero, zure filosofia aldatuz doa txirrindulari on baten atzetik hainbaten lana dagoela ikusten duzulako. Irabazten duena dagoen tokian dago bere atzetik daudenen lanaren ondorioz ere.

**berton:** Zer gomendio emango zenioke orain hasten den gazte bati?

**Eduardo:** Atletismoa kirolaren oinarria da. Salinas anaiak krosslariak ziren gaztetan, Lejarreta anaiak ere bai, nire anaiak ere korrika egiten zuten, 12-13 urterekin. Txikitatik sortu behar da kirolarekiko nahia eta gogoia. Nik gazteei esango nieke hasteko: saltoka, futbitoan, saskibaloian ... Azken batean

praktikatu eta gehien gustatzen zaiena egin dezatela.

**Iñaki:** Lehenik eta behin gauzak argi

**Eduardo:** "Otxarkoaga beti aldarrikatzen ibili behar duen auzoa izango da".

izatea. Gauzak argi izanda nahi duena egin dezake, zer nahi duen jakinik noski! Eta zenbat eta arinen jakin hobeto. Gauzak argi ez izateagatik gaur egun jende askok akatsak ditu.

**berton:** Nongotzat duzu zeure burua?



**Eduardo:** Bilbokoak naiz Bilbon jaio naizelako. Otxarkoagan 14 urtetan bizi izan naiz, Urribarrin 5 eta Santutxun beste 14. Beraz, Bilbokoak naiz auzo guztiak Bilbokoak direlako. Orain Santutxun bizi naizenez Santutxukoa naiz baina Otxarkoagan ere oso ondo bizi izan naiz. Hango futbol taldeko prestatzaile fisikoa izan naiz eta Otxarkoagakoa naizela esaten badidate ez dut txartzat hartuko. Nahi duzun tokikoa naiz Otxarkoagakoa, Santutxukoa...

**Iñaki:** "Norbera jaten duen tokikoa da, ez jaio denekoa". Nik beti argi izan dut. Niretzat auzorik politena eta nire bizitzaren urterik onenak bizi izan ditudana Otxarkoaga izan da. 20 urtetan bizi izan naiz eta 20 urte zoragarri izan dira. Honek ez du esan nahi Santutxun gaizki bizi izan naizenik. Santutxukoa beste kontu bat izan da: 20 urterekin heldu nintzen eta ez dut gozatzeko aukerarik izan beti kanpoan ibili naizelako. Orain Zurbaranen bizi naiz, oso leku atseginean, eta oso gustora gainera. Nongoa naizen? Toki guztietakoa. Jendeak nahi duen tokikoa naiz, nik ez dut inolako arazorik aitortzeko.

**berton:** Zelako harremana mantentzen duzu auzoarekin?

**Eduardo:** Santutxura heldu nintzenean Iluna Irratian sartu nintzen. Familia Elkartearen zuzendaritzan ere aritu izan nintzen. Ni bizi izan naizen auzo guztietan % 100ean integratu izan naiz. Eman dezakedan guztia ematen dut.

**Iñaki:** Noizean behin txikitako lagunak ikusten ditut. Sarritan, lanarengatik ere joan behar izaten dut. Nire auzoa da eta gustuko dut nahiz eta "kinki", drogazaleak eta abar egon. Baina hori pixkanaka desagertuz joango da. Gainera nik uste dut Otxarkoaga aukerak dituen auzo bat dela, gertatzen dena zera da: ez diotela azalera ateratzen uzten. Ni Otxarkoagara joaten naizen bakoitzean oso pozik joaten naiz.

**berton:** Zer da auzotik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

**Eduardo:** Santutxuk bizitza izugarria du. Santutxu, Santutxu da. Historia ugari du. Gutxien gustatzen zaidana hirigintza eta etxeen pilaketa da. Gehien gustatzen zaidana, aldiz, jendea, elkar bizitza eta giroa. 14 urte hauetan oso ondo bizi izan naiz eta berehala integratu naiz. Hemen, jende ugari ezagutzen dut eta jende ugari ezagutzen nau. Beti egon izan

naiz harremanetan era askotako elkarrekin.

**Iñaki:** Niri Otxarkoagatik dena gustatzen zitzaidan. Orain ez naiz bertan bizi, baina biziko banintz oso pozik egongo nintzateke. Nik txikitako oroitzapen onak ditut, oso ondo pasatzen nuen. Agian, lehen polemika eta drogazale gutxiago zeuden baina hala ere nik izugarri ondo pasatu dut Otxarkoagan.

**berton:** Uste duzu Otxarkoaga aldatu egin dela?

**Eduardo:** Bai, asko aldatu da. Ni bizi nintzenean (1962-1976) Otxarkoaga ezberdina zen, familiarragoa zen nahiz eta jende nahikotxo egon. Otxarkoaga beti aldarrikatzen ibili behar duen auzoa izango da. Handik jende on ugari atera da, maila guztietakoa: kultura, musika, kirola, politika... Gauza ez hain positiboak ere agertu izan dira: droga eta delinkuentzia. Hau lehen ere bazegoen, beti egon izan da. Hala eta guztiz ere, Otxarkoagak aldarrikatzen jarraitu behar du: azpiegitura gehiago, kultur etxea... behar duena. Gainera Otxarkoaga beti izango da laguntza eza jasango duen auzo bat. Kirola irteera bat izan daiteke nire ustez eta maila honetan laguntza osoa eskaini beharko zaie.

**Iñaki:** Nik baietz uste dut. Gainera uste dut txarrera egin duela. Garaien arabera delatzen uste dut, auzo guztietan bezala garai onak eta garai txarrak daude. Honek ez du esan nahi Otxarkoaga endekaturik dagoela; garai txar bat pasatzen ari da langabezia, droga eta lapurren arazoa dela medio. Baina nire ustez jende hori guztia urte batzuetan desagertu egingo da eta auzo ona izango da dituen aukerak adierazten duten moduan. Santutxu edota Begoñaren parera iritsiko da.

**berton:** Uste duzu Mahatserrian atletismoa / txirrindularitza praktikatzeko azpiegitura egokiak daudela?

**Eduardo:** Ez, argi dago. Gaur eguneko politikoez ez dute ezer egiten atletismoko pistak eraikitzeko. Kirolarekiko sentsibilitate eza adierazten dute behin eta berriz.

**Iñaki:** Azpiegitura zuk jartzen diozu zeure buruari. Kirol bat praktikatu nahi baduzu eta honetan ona izan nahi baduzu, kirol hori egiteko duzun gogoaren arabera da arazoa. Lehendabizi gauza bat egin nahi izan behar duzu eta honetaz ziur egon eta ondoren beste guztia gutxiengo horrek izorratu beharko du gehienak izorra ez daitezen urteko egun guztietan. Baina egia esateko, ez dut ondo ezagutzen arazoa, ez dakit Otxarkoagako zein puntutatik igaroko den.

**Iñaki:** "Otxarkoaga Santutxu edota Begoñaren parera iritsiko da".

nintzenean ez nuen munduko bizikletarik onena baina prestatu nahi izan nuelako lortu izan dut egin dudana.

**berton:** Zer iritzi duzu Otxarkoagako autobiar buruz?

**Eduardo:** Nire ustez gauza bat argi dago: Orain Otxarkoagan bizi ez naizenez ez dakit zelako eragina izango duen auzoan. Nire ustez eragina izango du eta arazoak egongo dira nahiz eta ziur jakin ez. Logikoa iruditzen zait auzokoak mobilizatzea matxura handia egin ez dezaten. Dakidanez, futbol zelaia lekuz aldatu dute eta jakin dut gauza asko, gainera, legez kanpo egin dituztela, era txapuzero batean. Nik nahi nuke auzoa ez ukitzea baina, iruditzen zaidanez, borrokatu egin beharko dute maila sozial, politiko eta kulturean. Nire ustez, politika mailakoa izango da borrokarik luzeena, udaletxe-ko politikariek inongo mailan sentsibilitaterik agertzen ez dutelako.

**Iñaki:** Ez dut gauza askorik ezagutzen. Ez dakit nondik joango den. Bakarrik dakit jendea kexatzen hasi dela

eta jendea kexatzen denean zerbaitengatik da. Hala ere, aldeko eta kontrako ikuspuntuak ezagutu behar dira. Ez dakit Otxarkoaga eta trafikoarentzako hobeia izango ote den. Agian familia batzuentzat txarra izan daiteke, baina nik uste dut dena aztertu behar dela. Batzuek izorratu egin beharko dute, baina denon ongizateagatik da. Azken batean, gutxiengo horrek izorratu beharko du gehienak izorra ez daitezen urteko egun guztietan. Baina egia esateko, ez dut ondo ezagutzen arazoa, ez dakit Otxarkoagako zein puntutatik igaroko den.

**berton:** Zer egiten duzu orain?

**Eduardo:** Trokelista naiz eta kooperatiba batean egiten dut lan.

**Iñaki:** Bisitari medikua naiz laborategi batetan. Anbulategi eta ospitaletako medikuei sendagaiak aurkezten dizkiet. Oso lan polita da.

Argazkiak: Iñigo Azkona.





# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## BRIÑAS: BUKATZEN EZ DIREN OBRAK



Briñaseko umeak manifestari

Briñasko eskolaren konponketa lanak zirela eta, bertako ikasleak 1995eko urrian atararazi bazituzten ere, gaur egun, bi urte eta erdi pasatu ondoren, hurrek eskola ezberdinetan sakanaturik jarraitzen dute eta Briñasko eskolak ez du oraindik bukatzeko itxuririk.

Briñas eskolako eraikuntzaren egoera hobetu beharrekoa zela eta, 1995. urtean bertoko 700 bat ikasle beste eskola batzura bidali zituzten lanak egin bitartean ahal bezala molda zitezten. Baina urtebete inguruko kontua izango zela ziurtatu bazieten ere, bertoko guraso zein irakasleak laster konturatu ziren lanak luzaroko izango zirela.

Izan ere, 1996ko abendurarte ez zen publikatu zein enpresaren esku utziko ziren lanak. Ormak enpresa izan zen aukeratua. Lanak 1997ko martxoan hasi ziren eta 1998ko martxoaren 20rako bukatuta egongo zirela ziurtatu zuten. Baina eguna heldurik, enpresak emandako hitza jan du eta oraindik dexente falta da eskola klaseak emateko moduan egon dadin.

Gainera, Ormak enpresak arazoak izan ditu eta honek egoera larriagotu egin du. Izan ere, Ormak enpresak iazko abenduan bere burua insolbente edo ordainezintzat jo zuen eta langileak ordaintzeari utzi zion. Ondorioz, hauek

urtarrila arte lanik egin gabe egon ziren, konponketarako epea are gehiago luzatuaz.

### IKASLEAK SAKABANATUTA

Gaur egun, OHOk 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleak Boluetako Haurtzaindegian jasotzen dituzte klaseak. OHOk 5. eta 6. mailakoek eta DBHko 1., 2. eta 3. mailakoek aldiz, Boluetako eskolan. Baina hori gutxi balitz, Boluetako eskola honetan Txurdi Behekoa Institutuko ikasle batzuk ere badaude, dagokien ikastetxean ez baitute lekurik. Honen eraginez, Boluetako Eskolan ez dago guztientzat lekurik, patioa ez da nahikoa, material eskasia dute...

Guzti hau salatzeke, Briñasko ikasle, guraso eta irakasleek ostiralero manifestazioak egiten dituzte eta zenbaitetan boleibol partiduak eginaz bidea moztu ere egiten dute, gurasoek adierazi dutenez, hurrek partiduak jolasteko lekurik ere ez dutela salatzeke asmoz. Apirilera lanak bukatuta egon daitezela eskatzen dute, protestak handitzearen mehatxuz eta irailaren baterako Briñasko eskola klaseak emateko moduan ez badago, guraso zein irakasleek erabaki dutenaren arabera ez dira beste zentru batera joango eta protesta ekintzak handituz kalera irtengo dira.

## Zurbaranbarriko Auzokideen Elkarteak, etorkinei lagunduz

Hilero-hilero, azken larunbatean biltzen dira Begoñaldeko auzo honetako auzokide batzuk atariz-atari egunkari zein edozein motatako papera biltzera joateko. Duela hiru bat urte hasi ziren ekimen honekin. Hileko azken larunbata baino astebete lehenago atari guztietan jartzen dituzte papertxoak, leku bakoitzetik noiz igaroko diren adieraziz. Auzokideek poltsetan paper mota ezberdinak bereiztuta uzten dituzte eta larunbatean goizean goiz hainbat etorkin eta Auzokideen Elkarteak hainbat kide elkartzen dira, furgoneta baten laguntzaz atarrietan utzitako papera biltzen dutelarik. Jasotako papera birziklatzeko leku batetara eramaten dute, eta bertatik ateratako dirua etorkinek bere beharretarako erabiltzen dute.

## Santutxuko Jai Batzordearen lehiaketa

Lehengo gabonetan Neguko Jaiaren barruan Santutxuko Jai Batzordeak festetarako ideien lehiaketa antolatu zuen argazki-erakusketarekin batera. Bota diren ideia guztiak batuta Jai Batzordeak lehenengo saria, lagun birentzako afaria, M. Cruz Riañori ematea erabaki zuen. Honek amateurrentzako musika, antzerki edota zinemaldia antolatzea proposatu zuen. Jai Batzordeko ordezkariak adierazi dutenez aurtengo egitarauan saiatuko dira ideia hau gauzatzen. Beraz, zorianak M. Cruz.

bertan

## BEGOÑAN TANATORIOA EZ DA EGINGO AZKENIK


Pasa den otsailaren 18an, osatu berri den Bilboko Udaleko gobernu batzordeak -EAJ, PSOE eta IUK osatua- LASA jatetxea izan zen lekuan tanatorioa ipintzeko beharrezkoak zirren lizentziak ez ematea erabaki zuen, osasun eta garbitasun kontuak arrazoituz, bestak beste.

Auzokideen iritziz, hasiera batetik aztertu behar ziren kontuak aintzatzat hartu dira orain, auzia hasieratik konponduta edo sortu barik egon zitekeenean. Dena den, pozik agertu dira hartu den erabakiarekin. Dagoeneko, leiho-

etan, balkoietan eta atarrietan zeuzkaten pankartak eta kartelak kendu egin dituzte. Euren helburua lorturik, borroka amaitutzat eman dute. Izan ere, 1997.eko udatik hasi ziren auzi honetan euren aurkako jarrera adierazten astearteroko manifestaldietan, batzarretan eta bestelakoetan.

Funeraria Bilbainak, tanatorioa ezarri nahi zuen enpresak, Bilboko Udalaren aurkako salaketa ipini du dagoeneko eta datozen egunotan ikusi beharko da auziak norantz joko duen.

## ERREPIDEA, PARKEA ETA ETXEBIZITZA BERRIAK MINA DEL MORRON



Mirafloreseko zubira doan "boulevard zentrala".

Martxoaren 5ean Mina Del Morro-ko urbanizazio obrak amaitu zituzten. Lan honekin Santutxu eta Miraflores artean "boulevard zentrala" izeneko errepidea sortu dute. Gasteizko gobernuak 713 miloiko inbertsioa egin ondoren, 230 metro karratuko parkea eta etxebizitzak eraikitzeke asmoa du. Proiektu honek aldaketa ugari eragin ditu inguruan antzinako etxeak eraitsi baitzituzten, besteak beste, Santutxuko Gatzetxea izan zena.

MARSET  
TERAPEUTIKOA  
L.A. CAMACHO  
411 32 20

GABILTZA  
E.K.M.  
PRENTSA BANAKETA

## Euskal Herriak NATO-ri ezezkoa eman ziola hamabi urte pasa direla eta, mobilizazioak Santutxun

Hamabi urte pasa dira Euskal Herrian NATO-ri buruzko erreferenduma egin zenetik. Emaitez, bertako partaide izateari ezezkoa eman zioten. Bilbon adibidez, % 22a agertu zen alde eta % 39a aurka. Hori dela eta, Santutxuko Malatxa talde antimilitaristak salaketa ekitaldi batzuk burutu ditu, "OTAN ez. Eman hitza herriari" lelopean. Malatxa taldeko partaideek adierazi dutenez, Euskal Herriaren nahia ez da errespetatu eta bere nahien aurka ematen den militarizazio egoera salatu nahi dute.

Hori dela eta, hainbat ekitaldi egin dituzte Santutxun. Martxoaren 8tik 13ra bitartean erakusketa ibiltari bat izan da ikusgai Santutxun zehar. Martxoaren 12an "OTAN eta Euskal Herria, herri borondatearen ukazioa" izeneko mahai inguru bat egin dute Maria Reina elizan. Ekitaldiei amaiera emateko berriz, Martxoaren 13an giza kate bat egin dute Santutxun zehar.

## Jokin Nuñez Santutxuko preso etxean

Martxoaren 17an Basauriko espetxean bederatzi hilabete egin ostean Jokin Nuñez preso askatu zuten arratsaldeko 3ak inguruan. Egun berean, gaueko 9etan ongi etorria egin zitzaion Sei Izar plazan. Dantzariak eta bertsolariak egin zioten harrera preso ohiari jende ugariaren aurrean. Ondoren, hasieran eman zioten lore sorta harturik Santutxuko Herriko Tabernara joan zen bere argazkia kentzera.



Zirku berezia dugu "Circo del Arte".

### "Circo del arte" Etxebarria Parkean

Otsailaren 26tik dago Etxebarria parkean zirku baten karpa ipinita. Zirku berezia da. Ez da gaur egun egiten den zirkoko espektakuluetan egin ohi dena, XVI. mendeko zirkuan egiten zena baizik.. Maskararen erabilera da ezaugarri nagusa. Pailazoak, aurkezlea, musikariak eta animaliak dira nagusi. Orokorrean mimoz zaindu dute dena: karparen tamainatik hasi eta artisten bizitokitara, dena dago antzinako erara dekoratuta. Ekimen honen sortzailea Emilio Aragon "Miliki" da, bere seme-alaben laguntzaz: Emilio Aragon eta Rita Irasema. Gu "Miliki"ren hitzen atzetik ibili gara. Hona hemen bildu ditugunak: Zirku berezi hau antolatzearen zergatiak galdetzean, zera erantzuten du: "Aspalditik nuen kapritxoia da. Jende askok uste du zirkua hiltzen ari den

zerbait dela eta nik, gure familiari, betidanik amesten genuen zirkua egitea proposatu nion; zirkuak izan behar duen bezalakoa, alegia". Bilbon zer moduz sentitzen den galdetzean berriz, zera dio: "Hemen, Euskadin oso ondo hartu gaituzte beti; oso publiko ona dago. Iruñean eta Gasteizen izan gara aurretik eta jendeak oso gustura pasatu du gurekin. Bestalde, alde honetan lagunak ere badauzkat eta hemendik nabilenean bazkaltzeko geratu ohi gara. Gustura egoten naiz hemen." Ekitaldiak astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean 19:00ean izaten dira, eta larunbat, igande zein jaiegunetan 16:15ean lehen emanaldia eta 19:30ean bigarrena. Ekitaldi bakoitzak, bi ordu irauten du.

Argazkia: Inigo Azkona.


### Honduraseko herriarekiko elkartasun azoka Santutxun

Martxoaren lehenengo, zortzigarren eta hamabosgarren egunetan Honduras herriarekiko elkartasun azokatxo bat antolatu zen Santutxun. Vermun Dei Komunitate katolikoa izan zen azokaren antolatzailea. Talde honek Honduras herrian bizi duten pobrezia-ri aurre egiteko asmoz, proiektu hau jarri zuen martxan. «Ez eman atzea» lemapean, hainbat artikulu egon ziren salgai azokan: buztinez eginiko tresnak, ipuinak, zenbait arropa,... Ildo honetan jarrai-tuz, Komunitate katoliko honek hainbat aktibitate antolatu ditu, hala nola, udarako «campos de trabajo» direlakoak.



### Gero arte Ibarsusiko futbol zelaiari

Ibarsusiko saihesbidearen obrak direla eta, Ibarsusiko oraingo futbol zelaia desagertu egingo da. Hil honetatik aurrera hango partiduak eta entrenamenduak Makaldiko behin-behineko zelaian egingo dira. Dena dela, datorren urtean-edo, futbol zelai berriak egingo dira lehengo zegoen lekutik gorago. Hain zuzen ere, zelai bi egingo dira, areazko bat eta bedar artifizialezko bat. Argazkian Makaldi etxe-taldearen aurreko behin-behineko zelaia ikus dezakezue.



Argazkia: Inigo Azkona.

Makaldiko behin-behineko zelaia.

### Otxarkoagako Euskal Txokoa txotx! egitera



Argazkia: Otxarkoagako Euskal Txokoa

Otxarkoagako Euskal Txokokoak kupelaren ondoan.

Martxoaren 6an, ostirala, Otxarkoagako Euskal txokoa antolatuta Urrietako Elutxeta sagardotegira irteera bat egin zen. Hara joan zenak sagardoaz eta giro euskaldunaz gozatzeko aukera izan zuten. Hogeitamar bat lagunek osatu zuten espedizioa. Euskaltegiko ikasle eta irakasleez gain auzoko euskaldun batzuk ere joan ziren. Askotan ez bezala euskara euskaltegiko geletatik ateratzeko aukera paregabea izan zen. Hasera haseratik nabaritzen zen festa giroa eta gogoia zegoela. Autobusean sartu orduko Euskal Txokoko ardura-dunek liburuxka batzuk banatu zituzten, bertan euskal kantu zahar eta berri mordoska bildu zutelarik. Opari aparta izan zen, makailu tortila mahai gainean


ikusitako arte tragoska batzuk edateko uanean bakarrik isiltzen baitziren. Tortila, saiheskia eta txuletak agertu zirenean kantupaperak atzeko patrikan sartu eta inork txintik ere ez zuen atera, intxaurrek eta gazta agertu eta gosea ase zen arte. Batzuk Txotx! egiteaz ere ahaztu ziren. Beste batzuk ordea ia denbora gehiago egin zuten kupelen ondoan, beren tokietan baino. Afalostean, berrikeretan batzuk, kantuan besteak, guztiak ere giro ezin hobean egon ziren ordu bata aldera arte. Inguru horretan taldea autobusean sartu eta Bilborako bidea alai-alai egin zuten. Hurrengo egunean ondo eta eztauri urratuak izan arren, dudarik gabe irteerak merezi izan zuten sentsazioa zen nagusi.



### Santutxuko Euskal Txokoa elurretara.

Argazkiko horiek ez dira Naganoko jokuetakoa parte hartzaileak, ez, planta eta estilo faltarik ez duten arren, Santutxuko Euskal Txokoa otsailaren 6, 7 eta 8an antolatu zuen irteerako hiru lagun baino. Bariku gauean Santutxuko eta Gasteizko berrogeita bost lagun abiatu ziren Izabara, han gaua egin eta larunbat goizean skiak hartu (zeuzkanak) eta Aretteko pistetako bidea hartu zuten. Pistetan skiatzaile trebeak atoan abiatu ziren piste gorri-beltzen bila, eta beste guztiak beheko txokotxo

batean praktikatzen eta ikasten utzita. Askok hantxe ipini zituen skiak lehengo, baina ipurdiko eta kokotekoak gorabehera, eta pistak ondo-ondo ez bazeuden ere, bazen kuña maisuki egitera heldu zen baten bat. Gauean Izabako tenperatura hotza patxaran zurrustadaxo batuekin epeltzen zebiltzala, bazuten guztiak kontatzeko abentura gehiago. Asteburu borobila eta polita. Errealaren golagatik izan ez balitz!



Argazkia: Santutxuko Euskal Txokoa.

### Ibon Arbulu Santutxutarra, HBko Mahai Nazionalera

Ibon Arbulu Santutxuko auzokidea, Herri Batasunako Mahai Nazionalerako partaide izateko aukeratu dute. Orain arteko Mahai Nazionala kartzelaratu ondoren, Herri Batasunak barne prozesu baten bidez Mahai Nazional berri bat aukeratu du, alderdi politikoak aurrera eramane beharreko lana kartzelatik eramatea ezinezko dela deritzotelako. Beraz, orain bi Mahai Nazional egongo dira: bata kartzelan dena, eta bestea, kaletik eguneroko lan praktikoak aurrera eramango dituenena. Talde berri honetako partaide izateko aukeratu dute Ibon Arbulu santutxutarra, orain arte Bilboko zinegotzia izan dena.

## MARTXOAREN 8A DELA ETA

Emakume langilearen eguna izan da hil honen 8an. Gure auzoetan ere hainbat emakume-taldek dihardu lanean, eta egun hau dela-eta zenbait gauza egin dituzte.

Txurdinagako BAGABILTZA taldeko emakumeek martxoaren 8a ospatu zuten Txurdinagako Gabriel Aresti Institutuan. Trikitrixak, euskal dantzak, poema errezitaldiak, saloiko dantzak, abesbatzak eta luntxak institutuko aretoa girotu zuten.

Begoñako TARTALO taldeak martxoaren 8an bideo emanaldia eta eztabaida-solasaldia antolatu zituen Begoñako Herri Txokoan. Zurbaranekeo plazan ere, bazkari herrikoa prestatu zuten urtero egun horretan egiten duten bezala.

IDUNA Santutxuko emakume gazteen taldeak "emakumeon borrokak egunero tinko dirau" lelopean manifestazio jendetsua burutu zuen martxoaren 6an. Manifestazioaren ondoren afari herrikoa prestatu zuten Sei Izar enparantzan eta jai giro atsegina eman zioten auzoari ostiral gauean. Honekin batera, hitzaldiak eta erakusketak ere antolatu zituzten aste osoan zehar.



Argazkia: Bagabiltza.

Bagabiltzako festa

### Santutxutik Hernanira

Martxoaren 14an, larunbata, Santutxuko AEK-k eta Euskal Txokoak irteera antolatu zuten aurtengo sagardo-uzta dastatzera joateko. Argazkian dituzuen hauek guztiak eta baten bat gehiago ere goizeko 11etan autobusean sartu eta Hernaniko Larregain sagardotegira abiatu ziren bazkaltzera. Giro politean eta sagardoa, bakailo tortila, txuleta, intxaurrak eta gaztaren artean eman zuten eguna. Hernaniko ohiko poteoa ahaztu barik.



Argazkia: Santutxuko Euskal Txokoa.

Santutxukoak txotxean hasi baino lehen



**PUNTAKO KIROL  
MARKAK**

**SANTUTXU SPORT**

**KARMELO, 9**

**Tfona: 412 37 01**

**SANTUTXU**

**GOIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

bertin

# aparteko ihauteri apartak



☞ **Arrate Diez, Benito Fiz**

**Argazkiak: Iñigo Azkona**

Hausterre eguna pasatu eta karnabalak amaitu, halaxe izaten da, baina ez beti, santutxutarrentzat ez dago baraurik, argazkiak ikusi baino ez dago. Gainerako herri-auzo guztietan sardina ondo lurpean dagoela, aurtan ere, hogeita batgarrenenez, santutxutarrak, Elizaren bedeinkapenarekin edo barik — hori ez dakigu —, Garizumako lehenengo domekan mozorroa jantzi eta "biba alegrantzie!", kalera irten ziren.

Aurpegia margotu, kareta jarri, etxeko norbaiten arropak jantzi, ulea koloreztatu... eta hori guztia aprobetxatuz egundoko jai giroa sortu du aurtan ere auzoko jendeak. Batzuek aspalditik prestatuturiko arropa eta mozorroarekin eta besteek azken orduko




edozein konturekin, guztiek topatu zuten lekua egun horretan.

Urtero lehenengo zita eguerdiko hamabietan da, orduantxe hasten da festa (gehienentzat) karnaballetako desfilearekin. Aurten ere, Karmelo kalean batu ziren taldeak eta koadrila bakoitzak bere "leiv-motiva" hartuta, Santutxuko kaleetan zehar paseatu zuten bata bestearen atzetik iladan.

Onena, berriz, gero etorri zen, desfilearen ostean. Segizioko taldeak, zein, lotsaren lotsaz edo alferren alferraz edo aurreko eguneko ajea dela-eta, desfilean sartu ez ziren hainbat talde auzoan zehar Rio de Janeirok gura lukeen saltsa eta giroa zabaltzen ibili ziren, bazkalordura arte batzuk, eta beste asko afalordura arte, edo batek daki zein ordura arte. Honela bada, egun osoan zehar eta gaueko azken ordura arte auzoa pil-pilean egon zen; jendea gora eta behera, txantxa, barrea eta algara, jai giro atseginean.

Bazkal orduan, ohi den legez, talde-bazkariak prestatu ziren. Jendetsuena Auzo Elkarteak antolatu zuena izan zen. Beste batzuk ere izan ziren hala ere, Gazte Asanbladak Sei Izar enparantzan antolaturiko indaba jana esate baterako.

Festa, esan dugun bezala, ez zen orduan amaitu, eta arratsalde osoan eta gauean ere jarraitu zuen. Halan da ze, astelehenean, Bilbon erraz igarri zitezkeen nor zen Santutxukoa eta nor ez, izan ere, begizulo eta funeral arpegiari erreparatu besterik ez zegoen. Beharbada, datorren urtean astelehen hori egutegitik kendu egin beharko da.




## Eta gainera...

Ihauteriek egun naturalak ere izaten dituzte, eta Mahatserriko jendeak egun hauetan hainbat gauza egiten ditu (santutxutarrek hauetan ere parranda egiten dute, ez dira makalak, gero!).

Bilboko ihauterietan, konpartsek antolaturik, desfilea egin zen. Mahatserriko konpartsak ere han izan ziren, eskuineko argazkian Otxarkoagako Pa...Ya-koek egin zuten sagardotegi ibiltaria duzue. Ideia ona hauena, desfilea merendatzeko aprobetxatu, eta desfilearen ostean parranda.

Beheko argazkian, berriz, Kaixo Begoñako konpartsarena duzue. Hauek, lehoi jantzita, San Mames txikitxo bat atondu zuten Gran Vian zehar. Horrelakoa izango ote da San Mames berria?



Pa..Ya-koen karroza



Kaixo-koen segizioa

Bestalde, eta antzinako ohiturari jarraituz (antzinakoa diogu, inork ez baitaki noiz hasi ziren), Santutxuko AEK-koek txitxiburduntzia eta mozorro-festa egin zuten ihauterietako barikuan. Karmelo plazan ibili ziren egun guztian zehar ordutegi ezberdinetako taldeak, goizetik hasita eta gaueko hamarrak arte, mozorroa jantzita, txarrikia erretzen, jaten, dantzan eta mintza praktika egiten. Gustura ikasiko dute horrela, gero!



AEK-ko ikasleak txitxiburduntzia prestatzen.

# Begoña ko familiarik handiena

S.D. Begoña Mallonan sortu zen 1924an. 74 urte hauetan izandako arrakasta eta porrot guztien lekuko bere betiko futbol zelaia izan da: Mallona. Zelai honek, Begoñako futbol taldearen historiarekin harreman estua du.

## Unai Cuevas

S.D. Begoña-k, bere historiaren lehen golak Etxebarria lantegian zegoen Mallona futbol zelaian sartu zituen. Gero, zelai honekin batera, gaur egun dagoen tokira aldatu zen. Aipatzekoa da, Mallona S.D. Begoña-rena izan dela beti eta gaur betetzen duen tokian eraiki zenean, taldeak 80.000 pezeta ordaindu behar izan zituela. Urteak pasa ahala, oster, zelaiaren jabetza beste talde batzuekin konpartitu izan du: Santutxu, Danok Bat Batasuna eta Solokoetxe.

Futbol talde honen oinarria 500 bazkide eta 100 jokalaria baino gehiagok osatzen dute eta bere ezaugarriarik adierazgarriena familia baten antza izatea da. Ez

da batere talde istilutsua izan, auzo talde bat izan da eta bere barnean jendearen arteko harreman ona mantendu izan da.

Mallonako zelaia eraikitzeko 80.000 pezeta ordaindu zituen S. D. Begoñak.

Beste edozeren gainera giro ona bizi izan du beti.

S.D. Begoña-n futbolari bikainek jokatu izan dute eta hauetako asko lehen mailako jokalaria bilakatu dira. Izen ezagunen artean Jesus Garai, Artabe, Joserra, Atxita, Mendieta (ate-zaina)... aurkituko ditugu.

Tituluak ere lortu izan ditu: lehen maila erregionaleko txapelduna, bigarren maila erregionaleko txapelduna, adiskidetzako mailako Bertol torneoa ...

Lorpen handiena hirugarren mailara igotzea izan zen eta bertan bi urtetan mantentzea.

Gaur egun, lehen taldea, oso talde gaztea da. Jokalarien adina 20 urtekoa da batez beste (orain dela bi urte zuten gazte taldeak osatzen du). Datorren urteari begira talde berbera mantendu nahi dute eta beharrezkoa bada errefortzu pare batekin indartu. Beheragoko kategorian, aipagarria da kadete taldea burutzen ari den denboraldia. Lehen postuan dago eta ziur asko datorren urtean goragoko mailara igoko da. Talde hau da esperantza handienak eskaintzen dituen eta helburu gehienak honetan egongo dira jarrita.

## 75. URTEURRENA

Hala ere, aipagarriena, hurrengo urtean ospatuko duen 75. urteurrena da, dudarik gabe. Ez da ohikoa izaten erregional mailako talde batek 75 urte betetzea eta horregatik ekintza anitz antolatu dituzte: bazkideen meza nagusia, ohiko adiskidetzako partiduak, urte ezberdinetako zuzendaritzak eta jokalaria bildu...

Hau guztia kontutan hartuta eta hurrengoko urteari begira gauza bakarra esan daiteke: Zorionak S.D. Begoña!!!



Argazkia: Irigo Azkona.

Kadete taldeko jokalaria ekinean.

# Izerdi patsetan

Mahatserrian kirol askorekiko zaletasuna dago. Kirol ugari praktikatzen dira bertan eta ondorioz hainbat talde federatu aurki daitezke. Jarraian agertuko den zerrendan hauetako batzuk dituzue

## SASKIBALOAIA

BARNIZADOS VIZCAYA  
C. B. BILBAO  
MARISTAS  
FREIRENORTH  
OTXARKOAGA C. D.  
PATRONATO S. D.  
SANTUTXU C. B.  
TXURDINAGA C. B.

## FUTBOLA

SANTUTXU F.C.  
OTXARKOAGA  
TXURDINAGA  
IBARSUSI  
DANOK BAT BATASUNA  
S. D. BEGOÑA  
SOLOKOETXE

## KARATEA

GIMNASIO BEGOÑA  
TXURDIKAN  
SHIN GUI TAI  
KIO KAI  
GASPAR  
MATSUMURA

## TXIRRINDULARITZA

SOCIEDAD CICLISTA SANTUTXU  
SVAC

## ESKUBALOAIA

C.B. SANTUTXU

## IGERIKETA

LOS ANGELES DEL MAR

## BOXEOA

NIVEL 3

## JUDO

GASPAR

## PILOTA

TXURDINAGAKO KIROLDEGIAN

## XAKEA

CLUB ZURI-BALTZA

## HOCKEY

SANTUTXU H.T.

## TENISA

TXURDINAGAKO KIROLDEGIA

## BOLOAK

BOLO PARMA  
BOLO LEONES  
TRES TABLONES  
PASABOLO

## MENDI TALDEAK

EGUZKI LOREA (BOLUETA)  
SANTUTXU MENDI TALDEA

## TAEKWONDO

NIVEL 3  
GIMNASIO YOON  
CLUB UKABIL

## GIMNASIA

TXURDINAGAKO KIROLDEGIAN  
ERRITMIKOA  
ARTISTIKOA

## EHIZA

LA BEGOÑESA

## BOLEIBOLA

I. B. BEHEKOA  
E.P. OTXARKOAGA  
C.P. MINA DEL MORRO

# kulturberriak

## SANTUTXUKO BERTSO ESKOLAK IRABAZI DU BILBOKO ARATUZTEETAKO KOPLA LEHIAKETA



Argazkia: Aitor Gonzalez Kintana.

### Bertso eskolakoak sari eta guzti

Bilboko ihauterietako koplak lehiaketako txapeliduna Santutxuko Bertso Eskola izan da aurten ere. "Zer historia klase da hau?" izenburupean taularatu zuten montajea, eta Esperanza Aguirre ministroaren Humanitateen dekretuaren kritika zorrotza egin zuten bertsozaleek euren lanean.

Historia klase bat erakutsiz, euskal historiako pasarte ezagunak antzestu

zituzten koplatan, musikaren laguntzaz. Gertakizunok "betiko" bertsoa eta erakusten ez den beste bat plazaratzen zuten, eta amaieran "Hildako poeten kluba" filmaren amaieran egiten denaren antzera, mahai gainera igota matxinatu ziren ikasleak.

Kopla lehiaketako "historiko2 bihurtu" dira jadanik Santutxuko Bertso Eskolakoak, urtero esku hartu ohi

dute, eta azkenaldian txapela behin baino gehiagotan eroan dute. Aurten ere, igaz bezala, espetxeraturik dagoen Tasio Erkizia eskolako kideari eskaini diote saria. Karmelo Ikastolako ikasleek ere, lehen sari biak atera zituzten gaztetxoaren atalean, eta aurten saririk lortu ez arren, Otxarkoagako Peña Pa... Yakoek ere fin erantzun zioten urteroko koplak-zitari.



Argazkia: Sama Siku.

### SAMA SIKU NIZAN

Sama Siku Santutxuko fanfarreko berrogei musikariek ez dute aurten Bilboko ihauteriak gozaterik izan. Izan ere, egun haietan, otsailaren 21 eta 22an, Frantziako Niza hiriko karnabalak alaitzen igaro zituzten. Han Europa guztiko fanfarrerik onenak kontratu ohi dituzte karrozekin batera desfilatzeke, eta onenak badira, Sama Sikuk han izan behar du duda barik. Sama Siku fanfarre mundiala eta internazionala!

1998ko martxoa. 2. zenbakia.

## BBK TXAPELKETAKO FINALERA SAILKATU DA BILBOALDEKO TALDEA



Argazkia: Aitor Gonzalez Kintana.

Ezkerretik hasita, Beñat Gaztelurrutia, Arkaitz Ugartetxea eta Iker Belaustegi Durangaldetik, eta Marta Ortiz, Arkaitz Estiballes eta Urtzi Urrutikoetxea Bilbotik

Bilboko bertsolari taldeak eskualdekako BBK Txapelketarako finalerako txartela lortu zuen joan den martxoaren 10ean, Txurdinagako Gabriel Aresti institututan jokaturako kanporaketan. Talde hau Santutxuko Bertso Eskolako Matxalen Zabaljauregik, Arkaitz Estiballesek, Urtzi Urrutikoetxeak, Marta Ortizek eta Iñaki Gonzalok eta Algortako Xabi eta Fredi Paya anaiek osatzen dute. Bermeon Busturialdeari puntu erdigatik irabazi ostean, Txurdi-

nagako saioan Durangaldekoari gailendu zitzaion Bilbo eta ondorioz, hilak 28an goizez Kafe Antzokian jokatu den finalean egongo da. Igazkoa errepikatuz, Lea-Artibai izango du aurkari, Arratia eta Busturialdeko taldeen aurka irabazi baitu.

Igazkoan bigarren lekua lortu zuten Bilbokoek finala galdu ostean, eta ziur txapel gosez izango direla Kafe Antzokian.

## Piztiak taldeak "Argia eta itzala" plazaratu du



Piztiak talde ondarrutarrak diska berria plazaratu du. Eta ondarrutarrak izanda, zer dela eta bertan-en aipatu? Erraza erantzuna, talde honetako kideek Santutxurekin dute harreman handia, Josu baxujoleak gehien baten, Santutxuko auzokide dugu, eta gainera hainbat urtetan jardun du Santutxuko AEKn eskolak ematen (seguruena haren ikasle ohiren batek irakurriko du hau). 6 urte igaro dira aurreko diskoa atera zutenetik eta oraingo hau martxoaren 18an aurkeztu zuten Kafe Antzokian. Bestalde, diskoaren azala Iñigo Zabalza artista santutxutarrarekin batera diseinatu du Josu Aranbarrik.



## Euskeria abesbatzak udaberriko kontzertuei hasiera eman die



Argazkia: Euskeria.

Euskeria Karmelo elizan kantari

Urtero egin ohi dutenez, aurten ere Santutxuko Euskeria abesbatza hasi da udaberriko kontzertu emanaldiekin. Bizkaiko Abesbatza da emanaldi hauek antolatzen dituen eta azken urteotan bezala, Euskeria prest dago bertan parte hartzeko. Martxoaren 14ean izan zen kontzertu hauen lehen emanaldia Basaurin. Ondoren, Martxoaren 28an Santutxun abestuko dute. Apirilaren 25ean aldiz, Alonsotegin eta Maiztaren 23an azkenik, Markinan.



- ✓ Martxoak 28: EUSKERIA abesbatza Santutxuko Karmelo elizan 8:30ean.
- ✓ Martxoak 29: EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO JAIA Etxebarria Parkean, egunean zehar. Berton, pandero, trikitrixa, dultzaina eta txalaparta saioak eta bazkalondoan HAIK HOR Begoñaldeko talde berriaren lehen kontzertua. Kitarra, trikitrixa, oboea eta ahotsaz osoturiko talde berria dugu hau.
- ✓ Martxoak 29: BIDEO EMANALDIA Begoñan. "Rob Roy" pelikula euskeraz. Igandero izaten da bideo emanaldi bat Begoñako Herri Txokoa (Andra Mari auzoa, 5. portalaren aurrean), 20:00tan, 200 pezetaren truke.
- ✓ Apirilak 5: MENDI IRTEERA Osmako Repicora, Santutxuko Mendi Taldeak antolatuta. Apuntatzeko: astearte edo ostegunean 7tatik 9tara Médico Antonio Egiluz 3, solairuaratean.
- ✓ Apirilaren 9tik 13ra Jarraik Oartzunen antolatu duen Gazte Topaketan erakusketa egiteko, GAZTE SORTZAILEEN LANEN bilketa. Gazteok eta Kitto Kultur Elkarteak galdetu.
- ✓ KLOWN TAILERRA Santutxun, Santutxuko Euskal Txokoa eta Sortuz ta Sortuz-en eskutik. Eman izena apirilaren 20a baino lehen . 473 54 48 telefono zenbakian.
- ✓ Zurbaranbarrin hilero, ludoteka eta LARRUA ETA MALABAREEN TAILERRAK. Informazio gehiago bertako Auzo Etxean.

Aldizkari berria garenez, oraindik zaila zaigu txoko guztietara heltzea. Beraz, Begoña, Bolueta, Otxarkoaga, Santutxu, Txurdinaga, edo inguruan ekitaldiren baten berri izanez gero, guri jakinaraztea eskertuko genizuke, denona den agenda hau ahalik eta hobekien osatzeko asmoz. Horretarako, utz ezazu mezua 473 54 48 telefono zenbakian edota bidali postaz Berton-en izenean, Aita Pernet 9ra, edo posta elektronikoko helbide honetara: [berton@mail.com](mailto:berton@mail.com).

Agendaren berri emateaz gain, aportioren bat, ideien bat, zalantzaren bat edo beste edozein gauza komentatu nahi izanez gero, erabil ezazue bide berdina, aldizkari honek guztiz zabala izan nahi baitu eta gustura jasoko baititu zure aportiak. Besterik gabe, aldezturik eskerririk asko.

## HOROSKOPOA

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra  
Oftalmologoak ez deutsu anteorjorik aholkatu, ezta? Ba zertan zabiltza lau hankako mahai baten azpian bueltaka beste hankaren bila?

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Horrenbeste espero zenduan oparia heldu jatzu azkenean? Bazan garaia! Egutero ibili zara kristolango abarketea sartzen eta aho zabalik itzi zaitue lagunek! Hurrengoan ahoa estalduko deutsue sorpresa egunera arte. Beraz hobe dozu berba gitxiago egitea badaezpada be.

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Txapuzero hutsa zara! Hau ezkerrean, bestea eskuman ea noz ikasten dozun gauza bakotxa bere lekuan izten! Bitartean, ez nahastu besteen kontuak, munduko disc-jockeyrik txarrena zara-ta!

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailearen 20ra.  
Noz deituko dauan itxadoten eta telefonoa beti komunikatzen? Beldurti handi bat baino ez zara! Erosi kabina bat eta zoaz bertan bizitzen.

**Leo:** uztailearen 21etik abuztuaren 23ra  
Lo kuluxka bat egiteko gogoia ezin burutik kendu? Ez ete da izango denbora gehiegi egon zarela sehaskatik irten barik? Hartzak negua lozorroan emoten dabela serioegi hartu zenduan, beraz, bada sasoi itzartzeko.

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Laranjak, patatak, kipulak, berakatzak... erosi behar badituzu, zertan zoaz liburudendara? Eguzkia nora, zapiak hara. Laranjak nora, liburuak hara? Espabila zaitetz, burua non daukazu be ez dakizu eta.

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Bizkotxoia azukre gitxigaz egin dozula dinotsue? Ez arduratu horregatik! Zuk ez dozu azukrerik behar gozoa izateko. Sakarinearaz be maiteko zaitue.

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Espero zenduan egun madarikatua heltzeko dagoala? Lasai gero! Edozelan etorri behar eban baina ideieari gero eta buelta gitxiago emon, zoriontsuago biziko zara. Azken baten, zortea bueltaka dabil eta izan leiteke zugana hurreratzea.


**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra  
Anbulantzia deitzeko arnasarik be ez dozula? Ondokoak lagun leizu, baina lastima berak jakin dagian be arnasa falta jatzula. Eskerrak txarto zagozanean aurpegiak kolore berdea hartzen dauala, eta edonor kontura daitekeala, aurpegia ikuste hutsaz. Zorionak!

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra  
Aizu! Gogoan dozun lagunak zure barri izan gura dau. Ez zara oraindino ohartu ala? Ba nahiko lotsagarria da horoskopoko baten bidez ohartu beharra. Beraz, erosi egizuz boligrafo pare bat eta estutu garune, lagune!

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Auzokideek kokoteraino zaukazela? Esaiezu kokoa emoten dauan zuhaitza ez dala kokoteroa, palmondoa baino. Halandabe, ez nekatu lar, kaletik ez zaitue agurtu be egingo.

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Besapeko hatsak ez deutsu mesede handirik egiten, beraz, arkontarea behingoz garbitu edo zu sartu arkontareagaz batera dutxan. Holan mesedea askogaz banatuko dozu: arkontarea, ingurukoak, zu zeu...

HIEROGLIFIKOA



Zapatu gauean, nora?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA

KABITIK BIGARREN SOLAIRURA

## LETRA-ZOPA

Topatu egizuz Mahatserriko hamar ikastetxeren izenak.

R	B	L	U	L	A	R	I	P	Z	A	Ñ	O	G	E	B	Z
J	E	R	N	I	N	I	E	B	A	L	D	S	I	Ñ	P	S
A	R	T	A	K	T	A	J	O	R	A	B	O	I	P	I	K
L	R	S	E	E	R	S	N	L	U	B	I	L	N	J	A	U
K	I	P	L	T	I	S	E	N	A	S	R	J	T	A	T	A
N	O	T	U	O	S	E	R	R	G	I	J	A	G	R	S	R
A	O	K	E	H	E	B	A	G	A	N	I	D	R	U	X	T
S	T	I	N	P	K	I	E	R	N	L	N	A	R	L	U	A
K	X	R	R	E	U	P	R	A	I	T	E	N	A	S	L	B
L	O	I	G	A	T	L	R	K	D	N	T	I	L	T	O	E
U	A	K	S	G	A	U	G	L	R	K	X	K	R	O	I	R
R	A	I	P	O	M	N	S	T	U	O	E	I	O	B	N	N
P	O	Ñ	I	Z	E	T	I	N	X	I	D	T	U	N	A	S
N	L	O	L	E	M	R	A	K	T	P	B	R	S	G	T	G

PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!

SAK  
SAK

bertin

# Izan nahi nuke ...

Doinua: Goizian argi hastian

Zuri, zeuri bihotzez

1  
Idazten dizkizut hemen hamaika bertso lerdan preso dauden sentimenduak askatzeko hain zuzen, lanbide batzuk aipatzen ditut zeu ohartu zaitezzen zenbat gauza izan nahi dudan eta zer gutxi naizen!

2  
Izan nahi dut MARINELA, hartu nire batela, eta tatuaje txiki bat egingo dut ahal dela zure izena jartzen duena itsasoak bezela nire azalak senti dezan zure laztan umela.

3  
Izan nahi nuke OKINA ta egin ahalegina neure eskuekin lantzeko sentipenen irina, gozo igurtzi ondoren utzi zulako ogi fina nire bihotzeko labean berotzeko jakina.

4  
«Kolorodun tximeleta», «Lur gozodun planeta», «Maitasunaren iturritik sortu zaren erreka», askoz hobeto zu omentzeko izan nahi dut POETA eta zure gorputz osoa poesiaz fereka.

5  
Izan nahi nuke SOLDADU, neure burua saldu, lubakietatik maitasun telegramak bialdu ta zure aurka egin burruka, irabazi zein galdu balak diren zure musuei alkondara zabaldu.

6  
Izan nahi dut ASTRONAUTA izar eder bat hauta bizi osoa bertan eman ilargiari zaunka, ta azkenean ustekabeen joko dut zure aurka, zure grabitate indarrak harrapatuik nauka.

7  
Egin nahi dut gogoeta, mila ta bat olgeta, maitasunaren Ramadana betirako debeka, nire Hegira sortzen ari da, izan nahi dut PROFETA zure barnean aurkitzeko pekatuaren «Meca».

8  
Izan nahi nuke ARTISTA: zirkuko trapezista, hainbat maite dudana bizia uneoro arriska, sarerik gabe jauzi suabe lurrerantz jaitsi bista eta zu izatea gero ni hilko naizen pista.

9  
Nahi nuke APAIZ bihurtu, sekula ez makurtu, nire kastidate botuak behin ta berriz apurtu, zugar sinetsi gaur, bihar, etzi, Santu guztiak urtu eta euren lekuan zure edertasuna gurtu.

10  
Izan nahi nuke PIRATA, itsasoak zeharka, Ron-a edan eta abesti debekatuak kanta, zeru erdira jarri begira begi bat partxez tapa begi biekin ikusteko lar ederra zara ta.

11  
Badut mila buruhauste, kontrakorik ez uste, aipaturiko ezer ez naiz baina ez nago triste, maite banauzu sinets nazazu NI NEU izan nahi nuke naizen apurra eskaintzeko irrifar horren truke.

Arkaitz Estiballes  
Santutxuko Bertso Eskola

ANGEL

HARATEGIA -URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6 Tfnoa: 412 48 59